

## Katedrako kideen jarduerak

**Carlos María Romeo Casabonak** ALCER Estatuko Federazioaren Urrezko Domina jaso du (2007). Estatuko eta nazioarteko hainbat gertaeratan parte hartu du. Euren artean, honakoak nabarmenduko genituzke: "Human Dignity: sociological, ethical and bioethical aspects" biltzarrean (Rabat, 2007ko ekainak 26-28) "Uses and abuses of the Human Dignity principle in relation with Biolaw" ponentziarekin; Argentinako Universidad Nacional del Litoral-eko Zientzia Juridiko eta Sozialen Fakultatean (Santa Fe, Argentina, 2007ko uztailak 2), "Libertades en Internet y sus límites penales" izeneko ponentziarekin; Ingurumen eta Zigor Zuzenbideari eskainitako Jardunaldian, Brasileko Estatuko Defentsoretza Nagusiak, Entre Ríoseko Justiziako Auzitegi Nagusiak eta Entre Ríoseko Probintziako Gobernuak antolatuta, (Paraná-Entre Ríos, Argentina, 2007ko uztailak 3), "Represión penal de la contaminación y las formas de prevención" ponentziarekin; Buenos Aireseko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean hitzaldia (2007ko uztailak 5): "La nueva ley española de fecundación artificial"; Zigor Zuzenbideko Nazioarteko IV. Biltzarra: "Las transformaciones de la delincuencia organizada y sus impactos político-criminales y dogmáticos", Txipaseko Gobernuak, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren bidez, Politika Kriminaleko Ikasketen eta Zientzia Penalen Zentroak eta Zientzia Penalen Mexikar Akademiak antolatuta (Tuxtla Gutiérrez, Txiapas, Mexiko, 2007ko abuztuak 13-17), "Los delitos de manipulación genética" izeneko ponentziarekin; PUC Minaseko antolatutako XVI Congreso Nacional do Conpedi, Programa de Pos-Graduação em Directo (Belo Horizonte, 2007ko azaroak 15-17), "Direitos fundamentais e globalização: uma análise a partir da Bioética" ponentziarekin; "Artificialmente natural. El impacto de la biotecnología en las personas, las sociedades y la naturaleza" jardunaldiak, Gasteizeko Artiumek antolatuta (Gasteiz, 2007ko abenduak 12-13), "De las células madre a la clonación humana ¿hacia una vida inmortal?" ponentziarekin; UNEDen XVIII. Udako Ikastaroen barruan, "Los derechos humanos ante el reto de los avances biotecnológicos", UNEDeko Zuzenbide Fakultateko Filosofia Juridikoko Sailak antolatuta (Logroño, 2007ko uztailak 9-13), "Nuevas iniciativas legislativas sobre investigación biomédica" ponentziarekin; "Derecho penal del siglo XXI" ikastaroa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Etengabeko Prestakuntzako Zerbitzuak antolatuta (Madril, 2007ko urriak 22-24), "La expansión del Derecho Penal en el campo de la Biotecnología humana: últimas tendencias" ponentziarekin; Murtziako Unibertsitateko Praktika Juridikoko Eskolak eta Murtziako Prestakuntza eta Osasun Ikerketarako Fundazioak (FFIS) antolatutako Osasun Zuzenbideko eta Bioetikako II. Masterra, Murtziako Osasun Zerbitzuaren eta Osasun Sailaren laguntzarekin (Murtzia, 2007ko azaroak 5), "Marco normativo de derecho,

genoma humano y reproducción asistida para sanitarios" ponentziarekin.

**Aitziber Emaldi Ciriónek** hitzaldi bat eskaini du azken hilabeteotan "Análisis genéticos en la nueva ley de investigación biomédica"ri buruzkoa, Osasun Zuzenbideari buruzko Estatuko XIV. Biltzarrean, Osasun Zuzenbideko Espainiar Elkarteak antolatuta (Madril, 2007ko urria). Irakasle ere aritu da "General Problems of Transnational Law and its Implications for the Companies in International Trade" izeneko Programa Trinkoan, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak antolatuta (Bilbao, 2007ko iraila).

Entzule gisa egon da "Embedding Science in Society. Science, Social Innovation and New Humanity" mintegian (Brusela, 2007ko abendua); "Derecho Penal, Ciencia, Tecnología e Innovación Tecnológica (I)" mintegian ere izan da, Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak antolatuta 2007ko azaroan; eta Deustuko Unibertsitateak antolatu duen "Etengabeko prestakuntza emakumeak ahalduzko estrategia gisa" mintegian ere egon da (Bilbao, 2007ko uztaila).

Duela gutxi Giza Baliabideetako irakasle gisa hasi da Deustuko Unibertsitateko Idazkari Eskolan.

Halaber, artikulu bat ere idatzi du, « La selección de embriones: Planteamiento ético-jurídico » izenburupean, Euskonews Media aldizkari elektronikoaren (SIN 1139-3629) 410. zenbakian, 2007ko urrikoan, hain zuzen.

**Pilar Nicolás Jiménezek** lagin biologikoak datu genetikoan tratamenduan erabiltzearen ondorio juridikoei buruzko hitzaldiak eman ditu: *Nuevas perspectivas de investigación con material biológico humano: el proyecto de Ley de Investigación Biomédica* izeneko etengabeko prestakuntzako mintegia, Euskadiko Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoak antolatuta; *Ley de Investigación Biomédica: análisis genéticos y utilización de muestras biológicas en investigación biomédica. Biobancos* izeneko jardunaldian, Vall d'Hebron Ospitalean; *Genetic data: opportunities and threats* jardunaldian, Trentoko (Italia) Unibertsitatean; eta *Bancos de tumores: implicaciones ético-legales y sociales* jardunaldian, CNIOk eta Roche Institutuaren Fundazioak koordinatuta. Ondorengoak argitaratu ditu: "Discussing options between patients and health care professionals in genetic diagnosis: ethical and legal criteria", *Hereditary cancer in Clinical Practice* delakoan, 5. bol., 3. zk., 2007. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako "Mamografía digital. Evaluación de la problemática de su introducción en el programa de detección precoz del cáncer de mama de la Comunidad Autónoma del País Vasco" ikerketa proiektu komisionatuko kidea da.

**Leire Escajedo San Epifanio** Ovidedoko Unibertsitateko María Ángeles del Brío León irakasleak zuzendu zuen "Bioética, encuentro con la ciencia y los valores" izeneko *Udako Ikastaroan*, 2007ko uztailaren 9tik 13ra, parte hartu zuen irakasle gisa. Aztertu zuen gaia hauxe izan zen: "El Genoma Humano y sus implicaciones ético-jurídicas". Eta "Zientzia eta gizartea" gaitzat hartu zuen mahai-inguru batean ere parte hartzaile izan zen.

Bizkaiko Medikuen Elkarte Ofizialak 2007ko urriaren 18tik 20ra antolatu zuen ICOMBi 2007 Elkarte Jardunaldi Teknikoetan "Los límites de los colegios profesionales" hitzaldia eman zuen. *La Medicina del siglo XXI: ¿Tiene límites la actividad profesional?* izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen, "Sobre la creciente presencia de la Bioética y el Derecho en el ejercicio de las Actividades biomédicas (porqué, para qué, hacia dónde)" gaia jorratu zuelarik.

**Iñigo de Miguel Beriainek** Grifols i Lucas Fundazioaren Ikerketa saria eskuratu du *La Clonación, diez años después* lanagatik. Horrez gain, honako ponentziak eskaini ditu: "La clonación: ¿derecho a la intimidad genética?", UNEDen udako XVIII. Ikastaroen barruan, "La Biotecnología" ikastaroaren barruan, Denian, 2007ko uztailaren 2tik 6ra; "Clonación y producción de niños vacuna: su incidencia en la dignidad y Derechos Humanos" hitzaldia eskaini zuen UNEDek Logroñon, udako ikastaroetan, 2007ko uztailaren 9tik 13ra izan zuen "Los Derechos Humanos ante el reto de los avances biotecnológicos" ikastaroan; "La globalización y la inmigración" hitzaldia eman zuen UNEDen udako XVIII. ikastaroetan, "Inmigración, multiculturalismo y derechos humanos" ikastaroaren barruan, Denian, uztailaren 9tik 13ra; "El embrión humano" gaia jorratu zuen Universidad del Mar-eko udako ikastaroen barruko "Inmigración, multiculturalismo y derechos humanos" ikastaroaren barruan, Murtzian, 2007ko uztailaren 16tik 20ra; "La investigación con células troncales" gaia jorratu zuen "Nuevas Perspectivas de investigación con material biológico humano: el Proyecto de Ley de Investigación Biomédica" mintegian, CEIC-ek antolatuta, Bilbon 2007ko irailaren 18an. Horrez gain, "La clonación, diez años después. Luces y sombras de una aportación científica de primer orden" artikulua argitaratu du *Cuadernos de Realidades Sociales*-en.

**Sergio Romeo Malandak** "Non-treatment of severely disabled newborns and criminal liability under Spanish law" lana argitaratu du liburu honetan: Charles Erin/Suzanne Ost (arg.), *The Criminal Justice System and Health Care*, Oxford University Press, 2007.

## Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Kideak :  
 Carlos M<sup>o</sup> Romeo Casabona dk. irak. (Zuzendaria)  
 Aitziber Emaldi Cirió dk (Aldizkako argitalpenen eta jardunaldien koordinatzailea)  
 Leire Escajedo San Epifanio dk.. (Graduondoko ikasketen koordinatzailea)  
 Pilar Nicolás Jiménez dk (Ikerketa proiektuen koordinatzailea)  
 Sergio Romeo Malanda dk (Nazioarteko harremanak)  
 Iñigo de Miguel Beriain dk. (Ikerketailea)  
 Borja de Arana Agirretxe dk. (Ikerketailea)  
 María Jorqui Azofra dk. (Ikerketailea)  
 Emilio Armaza Armaza jn. (Ikerketailea)

Fátima Flores Mendoza dk. (Aholkularia) posta kutxa, 1  
 Ulises Hernández Plasencia dk (Aholkularia) 48080 Bilbao  
 Amelia Martín Uranga dk (Aholkularia) Tel.: + 34 94 413 92 87  
 Esteban Sola Reche dk (Aholkularia) + 34 94 445 57 93  
 Asier Urruela Mora dk. (Aholkularia) Faxa:+ 34 94 445 55 13  
 llarrazaga@genomelaw.deusto.es  
 www.catedraderechoygenomahumano.es

Leire Larrazabal Laradogoitia (Idazkaria)

Boletín hau Deustuko Unibertsitateko itzulpen Zerbitzuak itzuli du

# Perspectivas

## en Derecho y Genoma Humano

### 10. zenbakia, 2007ko abendua

Zuzenbide eta Giza Genomako BBVA Fundazioa - Bizkaiko Foru Aldundia Unibertsitate arteko (DU, EHU) Katedra

Zuzendaria: Carlos María Romeo Casabona dk. irak. zuzenbideko eta medikuntzako doktorea eta honoris causa doktorea

Boletín hau ingelesez eta gaztelaniaz ere argitaratzen da

#### Editoriala

José María Cantú Garza ustekabeko gaixaldi labor baten ondoren hil da. Orri hauetatik gure omenaldi xume baina bihotzekoa eskaini nahi diogu berari eta berak egin duen lanari.

Giza Genetikako sendagile espezialista lanetan, José Mariak Mexikoko Guadalajarako Unibertsitateko Osasun Zentroan jardun zuen lanean. Laster konturatu zen teknika berriak eta medikuntza berria Latinoamerikako herrialdeetara ere iritsi behar zirela, bertako berezitasun eta idiosinkrasia kontuan harturik. Horregatik saiatu zen Latinoamerika guztiak, arlo horretan zituen aukera xumeen barruan izanik ere, presentzia sendoa izan zezan nazioarteko foroetan. Eta lortu egin zuen. Asmo horrekin sortu eta babestu zuen eskualde hartan zenbait plataformaren sorrera, PLAGH delakoarena (Giza Genomarako Latinoamerikako Programa), esaterako. Konturatu zen, halaber, gai hauetan diskurtso bioetikoa sartu beharra zegoela, Latinoamerikako herrialdeen ikuspegi propioak kontuan hartuta, bereziki herrialde indigenenak, berriro arpillatze biologiko eta kultural baten biktima izan zitezkeen eta. Bioetikarekiko interes komun hori dela eta, herrialdeen ezaugarri kulturetara egokitutako bioetika zela eta, jarri ginen Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrakook berarekin harremanetan, batez ere ikertzaile eta legelari talde batek "Manzanillo Adierazpena" (1997) prestatu eta onartu genuenean, hiri horretan Chemak berak antolatu zuen nazioarteko biltzar garrantzitsu bat zela eta. Adierazpen hau hainbat aldiz berraztertu zuen talde berak (Txileko Santiagon eta Buenos Airesen); giza genomari buruzko ikerketekin lotutako alderdi bioetikoa jasotzen zuen, baita egin zitezkeen aplikazioak ere Latinoamerikako beharrezan aintzat hartuta. Orintsuago, Giza Genomaren Mundu Erakundeko (HUGO) Etika Batzordean ere elkarrekin aritu ginen.

José María Cantúrekin batera parte hartu genuen jarduera hauetan eta beste batzuetan (Katedrak antolatutako Jardunaldietan, esaterako) ikusi ahal izan genuen bere irizpideak preziazitu eta balioztatu egiten zirela, ez gutxi gainera. Ezin zitezkeen bestela izan, bere ezagutza zabalari, txera eta umiltasuna, onberatasuna biltzen baitzitzaizkion, beti izaten baitzuen ezipainetan hitz bizigarri eta animuzkoa denentzat.

#### Iritzia

#### Zuzenbidearentzako beste erronka bat: kimeren eta hibridoen gaia

Zuzenbidea unibertsalizatzeko edozein saiok sortzen duen arazoetariko bat arlo juridikoa ulertzeko modua da, berez ez delako berdina, ezta gutxiagorik ere, gure planetako toki guztietan. Afrikako edo Amerikako kultura batzuetan, norbanakoak ez du berezko pisurik elkartearen aurrean; ekialdeko zibilizazioetan, ordea, ez da harriztekoa gizakia bera baino goragokoa den errealitate bateko kide delako ikuspegi batetik abiatzen diren arbasoengandiko arau sistemak aurkitzea. Gure kultura esparruan, ostera, Zuzenbidea kategoria zurrunetan oinarritutako barne egitura bati jarraituz antolatu da tradizioz, dena gizakiaren inguruan antolatzen zela, mundu juridikoaren gune absolutu bihurturik. Izan ere, hain dago era horretan herrialde indigenenak, berriro arpillatze biologiko eta kultural baten biktima izan zitezkeen eta. Bioetikarekiko interes komun hori dela eta, herrialdeen ezaugarri kulturetara egokitutako bioetika zela eta, jarri ginen Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrakook berarekin harremanetan, batez ere ikertzaile eta legelari talde batek "Manzanillo Adierazpena" (1997) prestatu eta onartu genuenean, hiri horretan Chemak berak antolatu zuen nazioarteko biltzar garrantzitsu bat zela eta. Adierazpen hau hainbat aldiz berraztertu zuen talde berak (Txileko Santiagon eta Buenos Airesen); giza genomari buruzko ikerketekin lotutako alderdi bioetikoa jasotzen zuen, baita egin zitezkeen aplikazioak ere Latinoamerikako beharrezan aintzat hartuta. Orintsuago, Giza Genomaren Mundu Erakundeko (HUGO) Etika Batzordean ere elkarrekin aritu ginen.

Araozak, hala ere, ez dira benetan berriak. Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, denok jabetzen gara azaldutako bereizketak betidanik izan dituela puntu ilunak eta, irtenbideak ematen saiatu bagara ere, ez direla, inondik eta inora ere, ikuspuntu guztiak asetzeko nahikoa izan. Zentzu horretan,

paradigmatikoa da giza enbrioaren estatutu juridikoaren inguruko eztabaida, batzuek pertsonen duintasuna eman nahi baitiote, eskubideen subjektutzat hartuz, beste batzuek eskubideen objektu dela esateko arazo handirik ez duten bitartean, hau da, gauza, adierazteko moldea hitz erakargarri apaindu arren ("babestutako ondare juridikoa" bezalako estilokoak, esaterako). Orintsuago, azaldutako saikapena funtsean aldatu nahi duten ikuspegiak sortu dira, zenbait animalia, batez ere simio handiak, pertsona ez gizatiarizat hartzea aldarrikatzen dutenak, hau da, zuzenbidearen subjektu direnen taldean kokatzen dituztenak, gure espeziekoak ez izan arren, edo Biosfera bera eskubideen benetako subjektu erreal bakarra dela dioten zenbait ekologista erradikalengatik aldarrikapenak. Jarrera horiek, nahiko bitxiak gerta dakizkigukeen arren, ezin dira batzuek egin duten bezain azkar eta erraz baztertu, orain arte argi eta garbi bereiz zitezkeen kategoria ontologikoak, kategoria bakar batean elkartzea posible izan daitekeen ulean.

Izan ere, eztabaida bizi hauek, berez, Zuzenbidearen mendebaldeko ulerkerarako gero eta erronka handiagoa badira ere, beren garrantzia ez da, gure aburuz, konparagarria ere gaur egun garatzen ari diren eta etorkizunean egingo diren esperimientuek izan dezaketenarekin. Adibide erraz bat jartzeagatik, baliteke hemendik denbora batera azken urteetan garatutako zelulen nukleoaren transferentziako teknikak eskala biologikoan gure arbaso zirenei bizia emateko norbaitek erabiltzea. Pentsa dezagun, puntu honi dagokionez, zein eragin sortuko lukeen inguruko edozein herritako arau sistematan *Cromagnon*-eko gizaki bat, *homo erectus* bat edo Neanderthal bat birsortzeak. Zein estatutu



juridiko eman beharko genieke? Gizakiona, hau da, eskubideen subjektuena, ala animaliena, objektu huts izatea atxikirik daramatenena? Galdera hauei erantzutea ez litzateke, zoritxarrez, erraza gurea bezalako sistema juridikoan.

Aipatu berri dugun adibidea, hala ere, zientzia fikziozkotzat jo dezakete batzuek. Bada, ordea, arrazoi pare on bat hori planteatzeko. Lehenengo eta behin, balitekeela itxura batean eman dezakeen bezain fikziozkoa ez izatea. Duela hilabete batzuetara arte Dolly sortu zuen teknikaren aldagaietako baten bidez hominido bat sortzeak oraindik ezinezkoa bazirudien ere, gaur egun baliteke ez izatea hain arrisksua hori eskuetan dugula iragartzea. Joan den udan, Shoukhrat Mitalipov irakasleak, *Oregon National Primate Research Center* erakundeakoa, iragarri zuen bere ikertaldeak lortua zuela enbrioien bi zelula ildo sortzea *macaco rhesus*aren zelula nukleoen transferentziaren bidez, orain arte ezagutzen zen metodotik nahikoa desberdina zen bide bat erabiliz. Garapen bioteknologiko hau, egiaztatu ondoren (oroimenean luzaroan izango dugun Woo Suk Hwang korear ikertzaileak egindako iruzurraren ostean, uste dugu ez dela inor halako beste saiorik egiten ausartuko), gizakien klonaziorako atea zabalik dagoelako baieztapen zientifikoa izango da, hau da, ernalketa ez den beste metodo baten bidez pertsonak sortzea posiblea dela baieztatuko du. Baina prozedura honek hominidoak sortzeko balio badu, baliteke norbaitek erabiltzea, etorkizunean, galduta dauden baina lagin biologiko nahikoa gordeta duten espezieak “berpizteko”. Utz dezagun, besterik gabe, denborak bere funtzioa egoki bete dezan eta gero gerokoak.

Bigarrenez, esan dezagun geure defentsan, adibide hori aipatu badugu, irakurlea ikuspegi bioteknologikotik askoz errazagoak diren beste esperimentu batzuk egiteki sor daitezkeen oso antzerakoa izango litzatekeen inguru batean kokatzeko izan dela. Hain dira errazak, zehatz esateko, asiarrak, iparramerikar edo europar ikerketa zentro askotan dira ohikoak. Kimerak edo hibridoak, hau da espezie desberdinetako material genetikoa nahastua duten izaki biziak sortzera bideratutako manipulazioez ari gara, jakina. Joan den mendearan 80ko hamarkadan hasita, gaur egun ente hauen produkzioarekin lotutako ikerketek erdeinagarria ez den garapen maila lortu dute. Bioteknologoak gaur egun eskura dituen teknikei esker, dagoeneko galeperrek bezala txor-txor egin dezaketen oilaskoak sor daitezke, esate baterako. Horretarako, nahiko da galeperren segmentu neuronalak oilaskoen enbrioio edo fetuetan sartzea. Horrek mutazio bat eragiten du, sortzen diren izakien burmuinaren funtzionamendua aldatzeko adinakoa. Teknika horiexek ari dira erabiltzen, gaur, hainbat esperimentu liluragarritan: giza neuronak saguetan sartzea, edo, baita

simioetan ere. Horren ondorioz, euren ezaugarriak aldatu egiten dira eta, oso modu oinarritzkoan bada ere, arrazoitzeke kapaz diren txinpantzeak sortu daitezke.

Kontatu berri ditugun gertakarien atzean dagoen errealitatea kezagarria da eta esan dezakegu aro berri baten aurrean gaudela, bioteknologiak Aristotelesek zehaztutako sistema kategoriala suntsitzeko gero eta kapazago den aro berri batean, hain zuzen. Urte batzuk barru posible izango da izaki kimerikoak sortzea, eta ezin izango ditugu gauza gisa sailkatu, batez ere, gurekin komunikatzeko gai izatea lortzen badute. Halako inguru batek ez dio, oro har, biologiar arazo handirik planteatuko, gaur egun zoologiak bereizten dituen sailkapenak birdefinitzea baino askoz handiagorik, ohiko taxonomietako kategoria berdinak barne. Testu honen hasieran aipatu ditugun sistema juridiko alternatiboetarako ere ez dirudi halako garapenek funtsezko erronkarik ekar dezaketarik. Gizakiak euren kosmobisioan garrantzi errealek ez izateak nahikoa malgutasun ematen die halako sakontasuna duen erronka bati aurre egiteko. Gure Zuzenbidearen kasuan, hala ere, halako egoera batek ukitu dramatikoak har dezake, gizakia ardatz izatea birplanteatu beharra baino ez baitu izango, bere inguruan antolatuta baita dena hamarka mendetan. Beste hitz batzuekin esanda, Zuzenbideak erabaki egin beharko du kategoria zaharrak mantendu nahi dituen, gizaki askok baino ahalmen handiagoko izakiak objektu gisa tratatuz (pentsa dezagun, esaterako, fetuetan, Alzheimer gaixoa oso aurreratua duten pertsonengan edo egoera vegetatiboan dauden pertsonengan), gizaki ez izate hutsagatik, edo euskarri duen egitura osoa birplanteatu beharra izango den, arlo juridikoko ekuazioan parametro berriak sartuz eta hobekuntza genetikoak egin zaizen zenbait animalia eskubideen subjektu izatera igotzeko modua emanez.

Bistan denez, azken horren aldeko aukera egiteak esan nahi izango luke eskubideen subjektu kontzeptua eta gizakia, edo nahiago bada, gizakia eta pertsona izatea banatzea. Horrek ekarriko luke, halaber, pertsona izatearen definizioa aldatzea, beti izaki jakin bati lotuta egon dena, gizakiari lotuta; eta horren ordez, espezieen artean besterik gabe bereiztea baino ezaugarri jakin batzuk izatea erreferentzia gisa hartzea (arrazionaltasuna, autonomia edo beste edozein), bere betean daudenean, potentzialtasuna dagoenean edo hondar hutsa izanik ere errespetua zor zaionean. Jakina, halako irtenbide bat hartzeko, Zuzenbideak, berarekin ekarriko litzuzkeen zalantza eta zailtasun tekniko guztiak gainditzeko trebetasuna ez ezik, halako aldaketa batek gizartearen sektore zabal batean seguru asko sortuko litzuzkeen sumindurei aurre egiteko adorea nahikoa adierazi ere egin beharko luke. Honekin aipamen egin nahi diegu, gizakiaren izaera

sakratua mantentzeko, gure izurde hobetua beste garai batzuetan beste arraza batzuetako pertsonak zeuden bezain babesik gabe uzteko prest daudenei; izan ere, balio gutxiagokotzat jotzen zituzten arraza zurikoak ez izateagatik..

Arazo hauek guztiak, hala ere, ekidin litezke, zuzenean, halako esperimentuak debekatuko bagenu. Seguru asko, halako erabaki bat hartzea askoren gustukoa izango litzateke, etikaren edo teologiaren ikuspuntutik ez ezik, baita, zoritxarrez, mundu juridikotik ere. Azken batean, Zuzenbidea edo, behintzat legelarien zati handi bat, nahikoa uzkurra izaten baita aldaketetara; areago, sarritan mehatxu gisa hartzen ditu segurtasun juridikoa bezain oinarritzko den balio baten aurrean. Hala ere, arrazoi onak daude halako erabaki bat hartzea hondamendia litzatekeela pentsatzeko. Lehenengo lekuan, jakina, kontuan hartu behar da inoiz ez lukeela praktikan arrakasta handirik izango, herrialde askok ez duelako gure kosmobisioa, eta horrek ezinezko bihurtuko luke halako murriztapen horiek hartzea. Eta praktika hauek egiteko debekua unibertsala ez balitz, ez litzateke baliagarria izango.

Arrazoi honetaz aparte, hala ere, zein mugatara gauden lotuak gero eta hobeto ezagutzeko gizakiaren beharrezanar ekarpen eskasa egingo lioke halako beto batek. Gizakiaren historia mundua menperatzearen historia da. Zuzenbidea Historiaren pultsua galgatzeko erabiltzen badugu, aldaketen eritimoa egoki bideratzeko erabili beharrean, zertarako sortua izan zen okertzen arituko gara: gizakia zerbitzea bere helburuak bete ditzan. Hala ere, geure ikuspuntutik irteteko adinako kemenik edukiz gero, ez bakarrik ikuspegi antropologikotik, baizik eta berez, beste kultura batzuen munduaren ulerkerara oso itxia den ikuspegitik, agian konturatuko gara ez zela hain beharrezkoa espezie aukeratua ginelako sentimendu hori izatea, ezta orain euskarri ditugun mugak bezain sendoak ezartzea ere.

## Katedrako Nobedadeak

### Taldeentzako dirulaguntzak

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dirulaguntza bat eman dio Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrari, Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldeei ematen dizkien laguntza deialdiaren barruan. Laguntzak sei urtetan jasoko dira (2007tik 2012ra) eta Katedraren jarduerari jarraipena emateko eta zabaltzeko balioko dute.

### Europar proiektu berria: POSEIDON

Unibertsitate arteko Katedrak Europako POSEIDÓN Proiektuan parte hartzen du. Proiektu honen bidez, ama zelula hematopoietikoko ez ahaideen transplantearen segurtasuna hobetu nahi da eta terapia honetara jotzeko aukera berdintasuna lortu Europar Batasun guztian. Proiektua Anne Gambon-Thomsenek –Institut National de la Santé et de la Recherche Médicale (Toulouse)- zuzentzen du eta beste zazpi bazkidek parte hartzen dute, erakunde laguntzaileak gain: World Marrow Donor Association (WMDA). Katedra ama zelula hematopoietikoen donazioan inplikaturako dauden lege gaien azterketaren eta 2004/23/EC Zuzentaraua praktikan jartzearen arduradun da. Horrez gain, gai hau mugatzen duen alde etikoa ere aztertzen du.

### Xenome Europar Proiektuaren bilera Parisen

2007ko irailaren 24an eta 25ean izan zen Parisen bilera bat Xenotransplantearen alderdi zientifiko, ekonomiko, soziologiko, etiko eta legalen inguruan. Aduen bilera hori europar proiektu baten barruan kokatu behar da; bertan hartzen dute parte Europar Batasuneko estatu kiderik gehienetako erakunde akademikoek eta ikerketa zentroek, Xenotransplantearen inplikazioak aztertzeko diziplina ugariko ikuspegitik. Batez ere, teknika horren epe ertain eta luzeko ikuspegiak zehazteko ahalgina egin zen; estatus gaindiko lan bateratua egin zen Europa mailan arlo hori arautu ahal izan dadin.

### Mintegia: “Farmako berrien ikerketa eta merkaturatzearen eronkak”

Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak 2007ko urriaren 29an ospatu zuen urteroko mintegia. Aurtun izenburu hau eduki du: “Farmako berrien ikerketa eta merkaturatzearen eronkak”.

Aurkezpen lana Carlos María Romeo Casabona irakasle doktoreak egin zuen, Katedrako zuzendariak. Ondoren eman zitzaion hasiera lehenengo saioari, “Farmako berrien ikerketa eta komertzializazioa mundu globalizatuan” gaiaren inguruan. Moderatzaile lanetan Aitziber Emaldi Ciriñon doktorea aritu zen, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko irakaslea eta Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako ikertzailea. Saio honetan parte hartu zutenak hauek izan ziren: Vicente Bellver Capella dk., Valentziako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiko irakasle titularra, “Principios jurídicos implicados en la comercialización de nuevos fármacos” gaiaz mintzatu zen; Amelia Martín Uranga dk., Farmaindustria Medikamentu Berritzaileen espainiar plataforma teknologikokoa, “Investigación biomédica con medicamentos innovadores” jorratzen aritu zen; Ricardo de Ángel Yagüez dk., Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko katedraduna, “Medicamentos, salud pública y responsabilidad jurídica” ponentzia jorratzen aritu zen; eta Carlos Espulgues Mota dk., Valentziako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna, “Comercio internacional de medicamentos” gaia aztertzeaz arduratu zen.

Bigarren saioa “patente eta lizentziei” buruzkoa izan zen. Leire Escajedo San Epifanio dk. Euskal Herriko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakaslea arduratu zen moderatzaile lanez eta parte hartzaileak honakoak izan ziren: Francisco J. Fernández Brañasek, Patenteen Europako Bulegoko Bioteknologia arloko zuzendariak (Munich), “La oficina europea de patentes y

la patente biotecnológica” jorratu zuen; Susana Borrás Pentinat dk., Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea, “Bioprospección, acceso a recurso genéticos y aprovechamiento compartido de los beneficios” gaiaz mintzatu zuen; eta Jorge Guerra González dk., Martín-Luther-Universität Halle-Wittenberg Unibertsitateko (Alemania) ikertzailea izan zen saioari amaiera eman ziona, “Desarrollo sostenible, aspectos sociales y biomedicina. El paradigma de la patente biomédica” gaia landu zuelarik.

### Iñigo de Miguelek Víctor Grifols i Lucas Fundazioaren 2006-2007ko ikerketa saria jaso du

Iñigo de Miguel Beriain Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako ikertzailearen “La clonación, diez años después” lanak jaso du Víctor Grifols i Lucas Fundazioaren Bioetikako ikerketa saria 2006-2007 edizioan.

Saria jaso duen monografiak gizakien klonazioarekin eta zelula nukleoen transferentziaren bidez lortutako zelula amen erabilerarekin lotutako arazoak jorratzen ditu, Dolly ardiaren jaiotzatik hamar urte pasatu diren honetan. Autorea erarik objektiboenean islatzen saiatzen da errealitate zientifiko berriak eta halako eztabaidetan oztupo diren aurreiritzietatik ihes egiten du argudio sendoak erabiliz.

Testua hilabete gutxi barru argitaratuko da.

### “Implicaciones jurídicas de la utilización de muestras biológicas y biobancos en investigación científica” ikerketa proiektuaren azken txostena

“Implicaciones jurídicas de la utilización de muestras biológicas y biobancos en investigación científica” ikerketa proiektuaren azken txostena egin da. Ikerketa proiektu horrek Eusko Jaurilaritzaren dirulaguntza jaso du (Erreferentzia: PI 2003 22. Ikertzaile nagusia: Carlos María Romeo Casabona). Esteken bidez, proiektuaren gaiarekin lotuta dauden hainbat dokumentutara jo daiteke. Zehazki, Nazioarteko Beste Erakunde Batzuen Auidietara, estatuetako legedietara (Espainia eta beste herrialde batzuetakoetara), baita beste araudi eta bibliografiako dokumentu batzuetara ere.

### Ikerketa Biomedikoko Legea italierara itzuli da

Ikerketa Biomedikoko uztailaren 3ko 14/2004 Legearen italierako bertsioa ere eskura dago. Simone Penasa doktoreak itzuli du, Trentoko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko Saileko ikertzaileak, horretarako Katedran laneko egotaldi bat egin duelarik.

### Zigor Zuzenbideari, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntza Teknologikoari buruzko mintegia (I)

26an eta 27an –SEJ2005-07489 proiektu zerbakiaren barruan, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren “Derecho Penal y Nuevas Tecnologías: sobre los intentos de adaptación del Derecho Penal al desarrollo social y tecnológico”, Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak, Carlos María Casabona irak.

Doktorearen zuzendaritzapean eta Emilio José Armaza Armazaren koordinaziopean, “Zigor Zuzenbideari, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntza Teknologikoari buruzko mintegia (I)” ospatu du. Lau saiotan banatu zen mintegi honen moderatzaileak hauek izan ziren: Carlos Suárez González, irak. dk., Euskal Herriko Unibertsitateko (Donostia) Zigor Zuzenbideko katedraduna; Esteban Sola Reche, La Lagunako Unibertsitateko (Tenerife) Zigor Zuzenbideko katedraduna; Mercedes Alonso Álamo, Valladolideko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna; eta Norberto de la Mata Barranco, Euskal Herriko Unibertsitateko (Leioa) Zigor Zuzenbideko irakasle titularra.

Miguel Ontiveros Alonso doktoreak (Mexikoko Distrito Federaletako Justiziako Prokuradoretza Nagusiko Prestakuntza profesionalerako Institutuko zuzendaria)

## Katedrako argitalpenak

**Revista de Derecho y Genoma Humano/Law and the Human Genome Review.** 2007ko uztaila-abenduari dagokion zenbakia, 27.a, argitaratu da honako enbakiarekin: *La Ley 14/2007 de Investigación Biomédica: algunos comentarios sobre aspectos éticos y científicos* (Juan Ramón Lacadena); *Reserva judicial y otras cuestiones relacionadas con el empleo del ADN en la investigación penal*

(*Parte I*) (José Francisco Etxeberria Guridi); *Eugenesia: ¿avance o retroceso?* (Emilssen Gonzalez de Cancino); *Protection of Genetic Data in Medical Genetics: A Legal Analysis in the European Context* (Sergio Romeo Malanda/Dianne Nicol); *El Tribunal de Cagliari (Italia) da luz verde al diagnóstico genético preimplantatorio* (María Jorqui); *Ley Orgánica 10/2007, de 8 de Octubre, reguladora de la base*

eman zien hasiera jardunaldiei, “Globalización, desarrollo tecnológico y Derecho Penal” gaia jorratu zuelarik; ondoren, Salernoko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedradun Andrea Castaldo irakasleak “Tradición Penal y obsolescencia en el Derecho Penal” izan zuen aztergai; Hans Lilie irakasleak, Halle-Wittenberg-eko Martín Luther Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanok eta Zigor Zuzenbideko katedradunak, “Politica criminal y sociedad del riesgo” gaiaz hitz egin zuen; lehenengo saioa amaizteko, Manuel Tello León irakasleak, Euskal Herriko Unibertsitateko Fisikako katedradunak, “Investigación científica e innovación tecnológica” zertan zer aztertu zuen.

Bigarren saioan honako hitzaldiak entzun ahal izan genituen: “Causalidad, incertidumbre científica y resultados a largo plazo” aztertu zuen Carmen Gómez Rivero doktoreak, Sevillako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedradun gaituak; “Reglas de imputación, problemas causales y ciencia” izan zen Edgardo Alberto Donna Buenos Aireseko (Argentina) Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedradunak landu zuen gaia; eta, azkenik, Carlos María Romeo Casabona Euskal Herriko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna eta Mintegiaren zuzendaria “Causalidad, incertidumbre científica y resultados a largo plazo” gaiaz mintzatu zen.

Hirugarren saioan parte hartu zuen Manuel Lezertua Rodríguez doktoreak, Europako Kontseiluko Aholkularitza Juridikoko eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoko zuzendariak, eta “Instrumentos jurídicos-tecnológicos en el ámbito europeo para la prevención y la persecución del terrorismo” landu zuen; Ulises Hernández Plasencia doktoreak, La Lagunako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle titularrak, “Efectos colaterales del desarrollo científico y tecnológico : delitos de peligro abstracto y leyes penales en blanco” gaiari heldu zion; eta, amaizteko, Zientzia eta Teknologiko Espainiar Fundazioako zuzendari nagusiaren ondoko Alfonso Beltrán García-Echanizek “El desarrollo de la política científica y tecnológica en España” gaia xehatu zuen.

Jardunaldiei amaiera emateko, azken saioaren barruan honakoak izan ziren parte hartzaileak: Fátima Flores Mendoza, La Lagunako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra, “El tratamiento del error en el cibercrimen” gaiaz aritu zen; geroago, M<sup>o</sup> Ángele Rueda Martín, Zaragozako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra, “Los ataques contra los sistemas informáticos: conductas de hacking, cracking y ciberpunking. Cuestiones político-criminales” gaiaz mintzatu zitzaigun; eta Miguel Ángel Boldoya Pasamar, Zaragozako Unibertsitateko irakasle titularra, “Pornografía infantil en la red: fundamentos y límites de la intervención del Derecho Penal” aztertzen aritu zen.

Saio bakoitzaren amaieran parte hartzaileen artean sortutako eztabaidak (irakasle eta ikasle espainiar eta latinoamerikarren artekoak) elkarre akademikoak gizarte eta teknologia garapenak Zigor Zuzenbideari planteatzen dizkion erroken eta arazoan inguruko interes handia duela agerian geratu zen. Azkenik, mintegiari Emilio José Armaza Armazak, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioako/Euskal Herriko Unibertsitateko doktorego aurreko ikertzaileak, ondorioak irakurriz eman zitzaiona amaiera

### Zuzenbideari eta Giza Genomari buruzko XV. Jardunaldiak

2008ko apirilaren 21ean eta 22an izango dira Deustuko Unibertsitateko Entzugelan Zuzenbideari eta Giza Genomari buruzko XV. Jardunaldiak. Programa osoa dugun momentuan iragarriko dugu gure web orrian: www.catedraderechoygenomahumano.es

*de datos policial sobre identificadores obtenidos a partir del ADN: Antecedentes históricos y visión genética* (Oscar García); *A comparative Analysis of Selected European Guidelines and Recommendations for Biobanks with Special Regard to the Research / Non –Research Distinction* (Bert Heinrichs)